

### 3-MERKATU-SEGMENTAZIOA

Datuek diotenez, ikusi ahal dugu, diagnostikatutako E.T.S aren ehunekorik handiena 20 eta 30 urte bitarteko adin-taldeari dagokiola. Horregatik, esan dugun moduan haientzat dugu zuzenduta neurri handiagoan.

Geure produktua , kontsumitzaileek dituzten lehentasunen eta premien arabera hautatzen dituzten eremu geografikoetan salduko da. Gehienbat hiri eremuetan edota hiri eremu inguruetan salduko da ; izan ere, pertsona gehienak hirietan bizi dira eta horrek asko baldintzatzen du gure produktua arrakasta eduki nahi baldin badu .

Gure produktua nahiko ekonomikoa da, pertsona guztien eskura egon dadin. Izan ere, hainbat herrialdetan duten neurriekin oso zaila litzateke gure produktua bertatik zabaltzea. Adibidez, Indiako Gobernuak debekatu egin du egunez preserbatiboan iragarkiak telebistan ematea, publizitate mota hori "haurren segurtasuna arriskuan jartzen duten" praktiken barruan sartzen delako.



Horrez gain, India bezalako beste hainbat herrialde daudenez, beste tokietara zuzendua izango da.

Gure enpresa, lehen esan dugun bezala , gazteentzat zuzendurik dago. Izan ere, bizitzako momentu batetik aurrera produktu honen beharra izaten da. Alde batetik, emakumeek pairatzen duten menopausia edota gizonak beste metodo antikonzeptibo iraunkor bat erabiltzen dutenean (vasectomia 25-50 urteko gizonezkoen artean egiten ohi da) .

Gainera, kontuan hartzen badugu hainbat komunitateen erlijioa edota bizitzeko modua, hainbat arazo edukiko genituzke; izan ere, erlijioak ez du ondo ikusten kondoiaren erabilera. Eta kontuan hartzen baldin badugu pertsona askok duten fedea, gure

produktua, bertan, ez luke arrakastarik edukiko. Askok uste baitute kondoiaren erabilera pertsona baten hilketak dela. Ondorioz ez zen errentagarria izango. Horrexegatik, gure enpresak, bezeroen beharrak eta nahiak asetzeko helburuarekin, gure produktua konsumitu nahi dutenei zuzendurik egongo da. Eta horrekin batera, gure produktuarekiko duten portaerarekin lotuta, hau da, markarekiko duten leialtasuna kontuan hartzekoa izango litzateke. Hori bete dadin, gure produkua euren nahiak asetzeas gain haien eskaerei erantzungo dizkiegu.